

## ZUMAIAKO UDALA ETA UROLAKO KOMUNIKAZIO TALDEA KOOPERATIBA.

2023-2024-2025-2026. URTE ARTEKO HITZARMENA

Zumaian, bi mila eta 2023ko martxoaren 16an.

### BILDURIK

Batetik, Iñaki Ostolaza Esnal NAN: 72443977A, duena, Zumaiaiko Udaleko (aurrerantzean Udala) alkatea, haren izenean eta ordezkari duena, Toki Araubideko Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikulua ematen dion lege ordezkari bezala, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena

Eta bestetik, Gorka Zabaleta Lopetegui, NAN: 35774352Z, Urolako Komunikazio Taldea Koop. ren (aurrerantzean UKT) lehendakaria, haren izenean eta ordezkari duena.

Bi alderdiok hitzarmen hau egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri eta

### AZALTZEN DUTE

**LEHENIK.-** Etorkizuneko Informazioaren Gizartean, garrantzi handia du hurbileko komunikazioaren esparrua euskararentzat irabazteak, euskal gizartearen ezaugarri propioei kopuruz nahikoa eta kalitatez duina izango den presentzia ziurtatu ahal izateko.

Hain zuzen, eskualdean hamarkada luzez lanean aritu diren euskarazko hedabideen oinordetza zuzena jaso duen UKT kooperatibak, eskualdean euskarazko komunikazio zerbitzuak abiatzea eta garatzea du helburu, informazioaren arlo tradizionalak nahiz berriak jorratuz, giza kohesioaren alde.

**BIGARRENIK.-** Zumaiaiko Udalak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2<sup>o</sup> 2016 Legearen 17.1.26 artikuluan jasotakoaren arabera, eskumen propio bezala jasotze du euskararen erabilera sustatzeko eskumena duela.

Hori horrela izanik, Zumaiaiko Udalak eta UKT kooperatibak euskararekiko jarrera positiboa indartzea eta hizkuntza komunikaziorako kompetentzia garatzeko beharra ikusi izan dute eta hori sustatzeko hitzarmen hau garatzea aipatzen jo dute.

**HIRUGARRENIK.-** Hitzarmen honek bat egiten duela Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuak "Euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu,

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EHIT0003-HI23/00010
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAE108.M.Nce3
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3</a>



Zumaia Udalak



2023EHIT0003-HI23/00010

garatu eta normalizatzeko" diru laguntzak emateko modua arautuz 2016ko uztailaren 20an emandako aginduaren helburuekin (EHAA, 2016ko uztailaren 22a, 140

zenbakia) eta, baita, Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak "Euskararen erabilera sozialaren inguruan diru laguntzak emateko oinarri arautzaileetan" (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2017ko martxoaren 7a, 46 zenbakia) finkatutakoarekin ere, eta osagarri dela.

**LAUGARRENIK.-** UKTk, gizartea zerbitzatzea duela helburu, ez duela diru irabazi helbururik eta, sortuko balitz, kudeatzen duen proiektu komunikatiboa hobetzera bideratuko dela osoki.

Lege eta ekonomia tresna egokiak daudenez hitzarmenak nahiz itunak garatzeko indarrean dagoen legeriak aurreikusitako izapide ezberdinak betearazi direnez, eta aurreko guztiarekin bat etorritik alderdiek honako **HITZARMEN** hau sinatzen dute ondoko xedapenen arabera.

## KLAUSULAK

### LEHENA Hitzarmenaren helburua

Eskualdean hamarkada luzez aritu diren euskarazko hedabideen oinordetza zuzena jaso duen UKT kooperatibak eskualdean euskarazko komunikazio zerbitzuak abiatzea eta garatzea du helburu, informazioaren arlo tradizionalak nahiz berriak jorratuz, giza kohesioaren alde.

Gaineratu behar da, Zumaia Udal Batzak 2018ko azaroaren 14an onartutako Zumaia Udalaren Ekintza Planean (ESEP) jasotzen dela Euskarazko hedabideak estrategikoak direla eta UKTk publikatzen dituen komunikazio euskarri multimediei laguntzak ematen zaizkiela. Kontuan izan behar da, helburu hori betetzen duen bakarra UKT dela momentu honetan, eta ez dagoela beste enpresa edo elkarterik helburu horretara bideratua dagoenik Zumaian.

### BIGARRENA; Hitzarmenaren indarraldia

Hitzarmen honetan UKT kooperatibaren eta Zumaia Udalaren arteko 2023-2024-2025-2026 urteko lankidetzak zehazten da. Hitzarmenaren indarraldia 2023ko urtarrilaren 1ean hasi zen eta 2026ko abenduaren 31 bitartera artekoa izango da (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 10/2015 Legearen 49.g.1 artikulua arabera)

### HIRUGARRENA.- Dirulaguntza:

Zumaia Udalak UKT-k argitaratzen dituen komunikazio euskarri multimediei egoki burutzen direla bermatuko du, horretarako diruz lagunduz. Nolanahi ere, proiektuak bideragarriak izan daitezzen, beste erakunde publikoei ere dirulaguntza

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EHIT0003-HI23/00010
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAE108.M.Nce3
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3</a>



eskatuko die (eskualeko udalei, Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari). Hala ere, beste finantzabide batzuk lortuz gero, ezingo da inoiz izan gain-finantzaketarik Udalaren laguntzarekin. Horri buruz, ekitaldiaren bukaerako ordainketan edo likidazioan, Udalak, gastuak eta diru sarrerak ikusi eta gero, ordaindu beharreko kopurua zuzendu egingo du gain-finantzaketarik egon ez dadin, eta hala balego onuradunak itzuli egin beharko du, hala badagokio, ordaindutako aurrerakinaren zati bat edo aurrerakin osoa.

Hitzarmen honen bidez, UKTko komunikazio euskarri multimediak 2023an 57.630 euroko dirulaguntza jasoko du- Ondorego hiru urteetan, 2024, 2025 eta 2026. urteetan, alegia, dagokion KPIa gehituko zaio kopuru horri urtez urte. (2023, 2024, 2025 eta 2026). Hala ere, erabaki hau urtez urte berretsi beharko du Udalak diru kopurua zehatza adierazten duen berariazko ebazpenaren bidez, hartzaileak aurkeztutako aurreko urteko zuriketa dokumentuak aztertu eta gero.

Udalak urteko dirulaguntza honela emango dio UKTri, urte bakoitzari dagokion kopuruaren %70 urte bakoitzeko lehen hiru hilekoan eta gainerako %30a, hurrengo urtearen hasieran, beti ere, Udalak memoria eta zuriketa onetsitakoan. Hori horrela izan dadin, UKTk hurrengo urte bakoitzeko urtarrilaren 31erako zuriketa eta dokumentazio guztia aurkeztu beharko du eta horren ondoren Udalak hilabeteko epea izango du bigarren eta azken ordainketa egiteko.

### **LAUGARRENA.- Diruz laguntzeko gastu kontzeptuak**

Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren izaerari erantzuten diotenak. Gastuak egiteko epea (faktura sortzea eta fakturaren eguna), oro har, urte naturala bukatzen denean amaituko da. Halaber, birkontratatzeko baldintzei buruz Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 29.eta 31. Artikuluetan xedatutakoa bete behar da. Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu moduan, legezko baliorik ez duten fakturak edo/eta egiaztagiri jotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez dituzten gastu oharrak edo bestelako dokumentuak. Halaber, kostuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharra dago. Dena den, eta salbuespenez, berariaz baimena eman ahal izango du Udalak, dagokion akordioaren bidez, gastu kontzeptu hori egiteko.

### **BOSGARRENA.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

Urte bakoitzeko urtarrilaren amaierarako, Urolako Komunikazio Taldea Koop Elkartearen ordezkariak edo eta erantzuleak agiri hauek aurkeztuko ditu.

- Urteko proiektua eta horren aurrekontua, beti ere, UKTko komunikazio euskarri multimediei dagokienez. Bertan honako atalak azalduko dira, besteak beste: helburuak, jarduerak edo ekintzak, baliabide ekonomikoak, giza baliabideak, material baliabideak, baliabide metodologikoak, ebaluazioa...

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EHIT0003-HI23/00010
CUDO kodea/Có. CUDO	<b>000.0081.AAAAE108.M.Nce3</b>
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3</a>



- Komunikazio euskarri multimediei dagokionez gastuen eta sarreren aurrekontua
- Hitzarmen honetan eta udal aurrekontuetan ezarritako dirulaguntzen onuraduna izatea debekatzen duen arrazoirik ez dagoela ziurtatu beharko du elkarsteak erantzukizuneko adierazpenaren bidez.
- Aurreko urteko gastuen zuriketa. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak ezartzen duen eran.

Aipatutako dokumentazioak akatsen bat duenean edo osatu gabe dagoenean, 15 eguneko epea emango zaio kooperatibari Udalak egindako errekerimendua jakinarazten den hurrengo egunetik hasita, antzemandako akatsak zuzentzeko. Emandako epea igarotakoan, horiek zuzendu gabe badaude, hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango du Zumaiaiko Udalak.

### SEIGARRENA.- Zumaiaiko Udalaren betebeharrak

Zumaiaiko Udalak Hitzarmen honen xedea betetzeko ondorengo ekintzak garatuko ditu;

- Zumaiaiko Udalak dirulaguntzaren ordainketa hitzarmen honetako hirugarren klausulan zehaztutako modu eta garaian egingo du.
- 

### ZAZPIGARRENA.- UKT kooperatibaren betebeharrak

UKT kooperatibak Hitzarmen honen xedearekin betetzeko, ondorengo ekintzak garatuko ditu.

- Zumaiaiko Udalak egin beharreko egiaztatze jardunak onartzea; baita eskuduntza duten beste kontrol organoek (estatukoak nahiz erkidegokoek) egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontroleko beste edozein ere, eta errekeritzen zaien informazioa ematea.
- Zumaiaiko Udalari jakinaraztea beste dirulaguntza, diru sarrera edo bitarteko batzuk lortu behar badira. Jakinarazi beharko da horien berri izan eta berehala, eta nolana ere, fondoei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.
- Jasotako fondoak zertan erabili dituen egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, baita dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jarduera egin daitezen.
- UKT-k Zumaiaiko Udalaren dirulaguntza jasotzen duela adieraziko du Hitza egunkarian, Baleike aldizkarian eta baleike.eus webgunean Jasotako fondoak itzultzea gain-finantzazioa gertatuko balitz.
- Behar beste baimen lortzea, komunikazio euskarri multimediak garatzeko eta baimenen xedapenak hitzarmena betetzea.

Aurrekoa kontuan edukita, ondoren aipatuko diren beste hainbat ezaugarri ere bete beharko ditu UKT kooperatibak.

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EHIT0003-HI23/00010
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAE108.M.Nce3
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3</a>



- Zumaiarren intereseko gaiak euskara hutsean landu eta UKTk dituen komunikazio euskarri multimedietan zabaldu, Zumaiko herritarrak euskaraz informazio hurbila, egiazkoa eta inpartziala izan dezaten.
- Zumaiko Udalaren jardueraren berri emango dute UKTko hedabideek, informazioak interes publikoa duen neurrian.
- Hitzarmen honetan aipatutako helburuak betetzea, proiektua betearaztea eta hitzarmen hau egiteko arrazoi den jokabideari eustea.
- Zumaiko Udalari urtean hiru aldizkariaren harpidetza ematea.
- Euskarari lotutako albisteak arreta berezia ematea, izan Udaleko euskara zerbitzutik datozenak, herriko euskara elkartetik, euskaltegitik nahiz beste edozein elkartetik datozenak.
- Edukiaren inguruan: Komunikazio euskarri multimediak, informazioa jorratzen eta zabaltzen, era guztietako edukiak eta gaiak argitaratuko dituzte. Independentek, pluralak, orekatuak eta parte-hartzaileak izango dira. Beraz, alderdi politikoen eta iritzi taldeen eraginpean izatea saihestuko dute, eta inpartzialtasuna zainduko. Eskualdeko beste elkarteek eta herritar orok parte hartu ahal izango dute UKTko komunikazio euskarrietan.
- Hizkuntzaren inguruan, komunikazio euskarri multimedietan euskara batuan idatzi eta hitz egingo da herriko hitz eta esamoldeei uko egin gabe. Hizkuntzaren kalitatea zaintzeko eta bermatzeko, Euskaltzaindiaren arauak, hedabide nazionalen (Berri, EITB) estilo liburuak eta Zumaiko Udalak onartutako toponimia zerrendak hartuko dira aintzat.
- Publizitatea; UKTk Baleike aldizkariaren zenbaki bakoitzean orri erdiko iragarkia eskainiko dio ohiko prezioaren %50eko deskontuarekin eta Baleike zerbitzu gidan bi orrialde ere eskainiko dizkio, horiek ere %30eko deskontuarekin.

Hemen jasotzen ez diren beste guztia hitzarmen honetatik kanpo geldituko da, eta Udalak zerbitzuren bat nahi badu aparteko fakturazio bidez ordaindu behako du (hala nola hitzarmen honetan jasotzen ez den publizitatea, kanpaina bereziak, esatari lanak, bideoak...)

### ZORTZIGARRENA .- Jarraipena

Zumaiko Udaleko Euskara Zerbitzuko arduradunak egingo dio jarraipena hitzarmenari eta bi aldeetako batek hala behar dela iritziz gero behar diren adina bilera egingo dira hitzarmenarekin sor litezkeen gorabeherak argitzeko.

### BEDERATZIGARRENA.- Araubide juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bere interpretazio eta garapena ordenamendu juridiko-administratiboaren arabera egingo du.

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EHIT0003-HI23/00010
CUDO kodea/Có. CUDO	<b>000.0081.AAAAE108.M.Nce3</b>
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<b><a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3</a></b>



Zumaia Udalak



2023EHIT0003-HI23/00010

Hitzarmen honetan jasotzen ez denerako administrazio arloko legeriara joko da; bereziki, hauetara; urriaren 1eko 39/2015 Legea Prozedura Administrazio Erkideari buruzkoa eta urriaren 1eko 40/2015 Legea Administrazio Publikoaren Araubidea Juridikoari buruzkoa.

Hitzarmen hau ez betetzearen ondorioz sortutako auziak ebazteko eskuduntza Administrazio Auzietarako Epaitegi eta Auzitegiarena izango da.

### **HAMARGARRENA.- Hitzarmena deuseztatzeko arrazoiak**

Hitzarmen honen seigarren klausulan aurreikusitako indarraldia igarotzeaz gain, honako arrazoi hauengatik ere ebatzi ahal izango da:

- Ezarritako epea bete denean.
- Alderdi sinatzaileek hala adosten badute.
- Aldeetako edozeinek bere kabuz hala erabaki duelako, hartutako konpromisoak betetzea oztopatzen edo eragozten duten salbuespenezko arrazoiak direla eta, hilabeteko aurrerapenarekin jakinarazpen fede-emailea egin ondoren.
- Alderdien bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea. Kasu honetan, aldeetako edozeinek errekerimendu bat eginahal izango dio alderdi urratzaileari, hilabeteko epean bete ez diren betebeharrak edo konpromisoak bete ditzan. Errekerimendu hori Euskara Zerbitzuko arduradunari jakinaraziko zaio. Adierazitako epea igarota, ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, hura zuzendu zuen alderdiak hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak jakinarazi beharko die alderdi sinatzaileei, eta hitzarmena suntsituzat joko du.

### **HAMAIKAGARRENA.- Ez betetzea**

Hitzarmen honetan ezarritako baldintzetako edozein ez betetzea, hitzarmena berraztertzeke kausa izan liteke eta, kasu horretan, hitzarmena baliogabetu eta bidegabe jasotako diru-zenbatekoak itzularaztea ekar lezake.

### **HAMABIGARRENA.- Erantzukizuna**

Zumaia Udalak ez du bere gain hartzen hitzarmen honetan espresuki agertzen ez den erantzukizunik.

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EHIT0003-HI23/00010
CUDO kodea/Có. CUDO	000.0081.AAAAE108.M.Nce3
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3</a>



Zumaiaiko Udala



2023EHIT0003-HI23/00010

## HAMAHIURGARRENA.- Hitzarmenaren ondorioak

Hitzarmen honek ez du bertan parte hartzen duten aldeen eskuduntzetan inolako aldaketarik edo murrizketarik ekartzen. Honen bidez, bi aldeek hitzarmenean bertan hartutako konpromisoak eta beraien ondorioz sortutako eginkizunak baino ez dituzte beregain hartzen.

Ados daudenaren froga modura, esku-hartzen duten bi alderdiek honako hitzarmen hau izenpetzen dute, bertan adierazitako leku eta egunean,

Eta goian azaldutakoarekin ados daudela frogatzeko, bi alderdien honako Hitzarmen honen bina kopia sinatzen dituzte, adierazitako egun eta lekuan.

Horrela jasota gera dadin eta dagokion lekuan behar diren ondorioak izan ditzan sinatzen dute hitzarmena bildutakoek.

**Iñaki Ostolaza Esnal**  
Zumaiaiko Udaleko  
Alkate-Lehendakaria

**Gorka Zabaleta Lopetegi**  
UKTko Lehendakaria

Dokumentu kod./Cod. Documento	2023EHIT0003-HI23/00010
CUDO kodea/Có. CUDO	<b>000.0081.AAAAE108.M.Nce3</b>
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<b><a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAE108M.Nce3</a></b>